

Ibilliz ego meak  
 yarabilk txibita;  
 egonez, laba bizi,  
 dariok garreta.

Sua goian eguzki,  
 sua bean lurra;  
 oro kiskal-zinkurin  
 aran naiz gaillurra.

Mendi ta zelaiak  
 busti pitin gabe,  
 bei, zekor, ardi ta auntzak  
 zer janik eztabe.

Uda!, zugatz-soloen  
 zorna oi dok edan;  
 ez al da, nausi biur!,  
 biotzik iregan?

Laru dagoz pagoak,  
 garilla izan arren;  
 bizi amasa ozta  
 nabaitzen or-emen.

Anboto erpiñean  
 ixio arkaitza,  
 ta goiztik gabera Axpe'n  
 oritu garitza.

Nok ire eskutik iges?  
 Ez izan erreza:  
 errekak itxasoan  
 ei dauko geriza.

Ater akigu, gaizto,  
 lar dok ire gezi;  
 betor aize ozkirri,  
 sorosle berezi.

Bekusgu, ostera be,  
 gaiñ oial urdiña,  
 osoan biotz jausi  
 ez dedin lugiña.

\* \* \*

Zemai kiskal oi dokan,  
 uda zigorkari:  
 gutaz, egun bederen,  
 erruki izan adi.

### ITXAS - ONTZIA

Lanbroaren aide dan itzal auskorretik  
 lo artean dei egin daustazun turuta:  
 itxasoz andikako lelo bat, ozenik,  
 zuri millaka esker, oraintxe eldu yata.

Nitzat daukazu ausaz, koralez egiñik,  
 azken atsedeen gisan, burko txit pertxeta.  
 Jadanik jaso dozu meatz sakonetik  
 niri soña ertsiko daustan nakar-meta.

Gaur arte, ez naz iñoiz itxasoz ibilli,  
 ez ugarteetarako arraunez saiatu,  
 ezta ez dot endaitzik eskuz erabilli.

Ta, eriotz ontzia neure billa dator.  
 Aize oialak dakaz arro ta putzitu.  
 Dei dagist begi klixkaz, larri asko, izukor.